Visto que de conformidad con lo dispuesto en la Ordenanza reguladora de las bases generales para la concesión de subvenciones municipales del ayuntamiento de Orduña, es preciso aprobar la convocatoria y las bases reguladoras específicas de la concesión de subvenciones a las personas que hayan estudiado euskera durante el curso 2025-2026, o en el verano de 2026.

Ikusita Urduñako Udalaren diru-laguntzak emateko oinarri orokorren Ordenantza arautzailearekin bat, beharrezkoa dela 2025-2026 ikasturtean eta 2026ko udan euskara ikasi duten pertsonentzako euskara ikasteko diru-laguntzen deialdia eta dagozkion oinarri arautzaile espezifikoak onartzea.

Visto que existe en la partida número 04 3303 48151 del presupuesto municipal consignación presupuestaria suficiente por importe de CATORCE MIL EUROS (14.000 €).

Behin ikusita ekitaldi honetako aurrekontuetako 04 3303 48151 zenbakidun partidan aipatuko deialdiko diru-laguntzak banatzeko behar beste diru-zuzkidura badagoela, zehazki guztira HAMALAU MILA EUROko (14.000 €) zenbatekoa

Visto que la competencia para la aprobación de las bases específicas y convocatoria corresponde a la Alcaldía de conformidad con lo establecido en el artículo 21.1.g) de la Ley 7/1985, de 2 de abril, Reguladora de las Bases de Régimen Local,

Ikusita Toki Araubidearen Oinarriak arautzen dituen apirilaren 2ko 7/1985 Legearen 21.1.g) artikuluan ezarritakoarekin bat etorriz, Alkateari dagokiola horrelako jarduerak onartu eta deitzeko eskumena,

En virtud de lo expuesto

Hori dena kontuan hartuta,

RESUELVO

EBAZTEN DUT

PRIMERO. Aprobar la convocatoria y las bases reguladoras específicas de la concesión de subvenciones a las personas que hayan estudiado euskera durante el curso 2025-2026, o en el verano de 2026 y su convocatoria, que se recogen en el anexo.

LEHENA.- 2025-2026 ikasturtean edota 2026ko udan, euskara ikasi duten pertsonentzako euskara ikasteko diru-laguntza deialdia eta eranskinean jasotzen diren dagozkion oinarri araultzaile espezifikoak onartzea.

SEGUNDO.- Publicar dicha convocatoria en el Boletín Oficial de Bizkaia para su conocimiento público a los efectos oportunos.

BIGARRENA.- Deialdi hau jendaurrean ipintzea Bizkaiko Aldizkari Ofizialean, behar diren ondorioetarako.

ALKATEA /EL ALCALDE
Jon Iker Santocildes Pérez

IDAZKARI KONTU-HARTZAILEA
SECRETARIO INTERVENTOR
Angel María Marcos Robles

Transkribatu liburura soil-soilik benetakotasunaren eta osotasunaren berme gisa

Transcribir al libro exclusivamente como garantía de su autenticidad e integridad

Orri- bazterren elektronikoki sinatuta/ Firmado electrónicamente al margen

Sinatzaile / Firmante: URDUÑAKO UDALA / AYUNTAMIENTO DE ORDUÑA Data: 2026-11-13 10:26:47(UTC) Fecha: 13/11/2026 10:26:47 (UTC)
Sinatzaile / Firmante: JON IKER SANTOCILDES PEREZ Data: 2026-11-13 12:35:11(UTC) Fecha: 13/11/2026 12:35:11 (UTC)
Sinatzaile / Firmante: ANGEL MARIA MARCOS ROBLES Data: 2026-11-16 07:42:24(UTC) Fecha: 16/11/2026 07:42:24 (UTC)
Dekretuen zk. / N. decreto: 2026-01057 Dekretuen data / Fecha decreto: 13/11/2026
Dokumentu honen paperezko kopia inprimatua kopia kautotutzat hartuko da. / La impresión en papel de este documento tendrá la consideración de copia auténtica.
Egiaztapen Kodea / Código de Verificación (948af2eb-0047-4f5a-9df7-73bb472651ae). Elektronikoki sinatutako dokumentua / Documento firmado electrónicamente.

I. ERANSKINA

EUSKARA IKASTEKO DIRU-LAGUNTZAK EMATEKO OINARRI ARAUTZAILE ESPEZIFIKOAK. URDUÑA, 2026.

AURRERAKARIAK.-
Euskararen erabileraren normalizazioan aurrera pausuak emateko, are gehiago Urduñakoa bezalako testuinguru soziolinguistiko batean, ezinbestekoa da homologatutako ikastaroen bidez herritarren euskalduntzea eta/edo alfabetatzea sustatzea. Horregatik, Urduñako Udalak, Euskara Arloaren bitartez, euskara ikasteko diru-laguntzak emateko prozedura-esparrua ezarri nahi du.

LEHENENGOA.- Diru-laguntzaren xedea
Oinarri hauen xedea da euskara ikasteko diru-laguntzak emateko arau-esparrua ezartzea, eta, zehazki, 2025-2026 ikasturtean helduen euskalduntze eta/edo alfabetatze ikastaroak egiteko, euskaltegietan zein barnetegietan, betiere ikastaro horiek homologatuta badaude.

2025-2026 ikasturteak barne hartuko du 2025eko irailaren 1etik 2026ko uztailaren 31ra arteko epea.

Helburua da euskararen erabilera sustatzea eta normalizatzea Urduñan, Euskara Sustatzeko Ekintza Planaren ardatz estrategikoei jarraituta: euskararen jabekuntza, erabilera eta kalitatea.

BIGARRENA.- Aurrekontu-partida

2026ko ekitaldirako esleitu beharreko diru-laguntzetarako aurrekontu-baliagarritasuna 14.000 eurokoa izango da.

Deialdian zehar –deialdia onartzen denetik diru-laguntza ematen den arte- aurrekontuko zenbatekoa murrizten bada, diru-laguntzaren zenbatekoa egokitu egingo da defizitik egon ez dadin.

Laguntza-deialdi honen ondoriozko guztizko gastua Urduñako Udaleko Euskara Arloaren 2026ko 04 3303 48151 « euskara ikasteko diru-laguntzak » aurrekontu-partidaren kontura egingo da.

HIRUGARRENA.- Diru-laguntzaren zenbatekoa

Ohiko zenbatekoak:

- 2026ko ekitaldirako aurreikusitako aurrekontuan eskabide guztiei aurre egiteko behar besteko aurrekontu-zuzkidura balego, diruz lagun daitekeen gastuaren % 50 ordainduko da.
- 2026ko ekitaldian gordetako aurrekontua nahikoa ez balitz, banakako gehieneko zenbatekoak proportzionalki egokituko lirateke.

Ohiz kanpoko zenbatekoak:

- Eskaera guztiei erantzun ondoren, oraindik soberako aurrekonturik balego, Urduñako Udalak kopuru hori proportzionalki banatu ahal izango du eskabide guztien artean, eman beharreko portzentajearen arabera, beti ere gehienez eskaera bakoitzeko matrikularen % 75 edo 800€ko zenbatekoa emanez.

Sinatzaile / Firmante: URDUÑAKO UDALA / AYUNTAMIENTO DE ORDUÑA Data: 2026-11-13 10:26:47(UTC) Fecha: 13/11/2026 10:26:47 (UTC)
Sinatzaile / Firmante: JON IKER SANTOCILDES PEREZ Data: 2026-11-13 12:35:11(UTC) Fecha: 13/11/2026 12:35:11 (UTC)
Sinatzaile / Firmante: ANGEL MARIA MARCOS ROBLES Data: 2026-11-16 07:42:24(UTC) Fecha: 16/11/2026 07:42:24 (UTC)
Dekretuen zk. / N. decreto: 2026-01057 Dekretuen data / Fecha decreto: 13/11/2026
Dokumentu honen paperezko kopia inprimatua kopia kautotutzat hartuko da. / La impresión en papel de este documento tendrá la consideración de copia auténtica.
Egiaztapen Kodea / Código de Verificación (948af2eb-0047-4f5a-9df7-73bb472651ae). Elektronikoki sinatutako dokumentua / Documento firmado electrónicamente.

- Era berean, ikasturtearen hasieran adinez nagusiak diren eskatzaileen kasuan, ikasturtean zehar gutxienez hiru hilabetez langabezian egon badira, diru-laguntzaren ehunekoa zuzenean % 100era igoko da, betiere irizpide hori aplikatzeak matrikularen gainfinantzaketa edo 800€ak gainditzea ez badakar.

Diruz lagundu daitekeen gastutzat hartuko da ikastaro eta barnetegietako matrikularen zenbatekoa. Ez dira kontuan hartuko joan-etorriak, materiala, mantenua, ostatua, etab.

LAUGARRENA.- Onuradunak eta laguntza emateko baldintzak

Eskatzaileek ondoko baldintzak bete beharko dituzte:

1- 2026an 16 urtetik gorakoak izatea edo 16 urte betetzea.

2.- Urduña udalerrian erroldatuta egotea, eskaera egiten den egunerako gutxienez urtebeteko antzinatasunarekin.

3.- Helduak euskalduntzeko eta/edo alfabetatzeko ikastaro bat edo gehiago egin izana, euskaltegietan zein barnetegietan, betiere ikastaro homologatuak badira.
Deialdi honetan ez dira diruz lagunduko euskararekin zerikusia izan arren euskalduntzea helburu nagusitzat ez duten ikastaroak: itzulpen eta interpretazio ikastaroak, glotodidaktika ikastaroak, dialektologia ikastaroak eta abar.
Era berean, diru-laguntza horretatik kanpo geratuko dira graduondokoak, doktoretzak, masterrak eta karrerako ikastaroak, bai eta Eusko Jaurlaritzako Hezkuntza Sailak araututako ikaskuntzak (Hizkuntza Eskola, etab.) eta beste erakunde batzuek, hala nola IRALEk edo IVAPek egindako ikastaroak ere.

4.- Ikasketa horiek 2025-2026 ikasturtean edo 2026ko udan egin izana.

5.- Gutxienez ikasturteko eskola-orduen % 80ra joan izana. Hori berresteko, euskaltegiko zuzendaritzak emandako ziurtagiria baino ez da onartuko baliozkotzat.

6.- Urduñako Udalarekiko zerga-betebeharrak, Gizarte Segurantzarekikoak eta zerga-betebeharrak egunean izatea diru-laguntza emateko, onartzeko eta ordaintzeko prozesu osoan.

7.- Langabeziaren kasuan: Gizarte Segurantzaren Diruzaintzak emandako lan-bizitza edo, halakorik ezean, LANBIDE Euskal Enplegu Zerbitzuaren txostena, zalantzarik gabe ondorioztatzen duena laguntzaren eskatzailea hiru hilabetez egon dela langabezian 2025eko irailetik 2026ko uztailera.

Artikulu honetan adierazitako betekizunak beharrezkoak dira onuradun izateko. Horietakoren bat ez betetzea baztertzeko arrazoitzat hartuko da.

<u>Baztertzea</u>:

- Ezingo dira onuradun Diru-laguntzei buruzko azaroaren 17ko 38/2003 Legearen 13. artikuluan edo Urduñako Udalaren Udal Diru-laguntzak emateko Oinarri Orokorrak arautzen dituen Ordenantzan jasotako egoeraren batean dauden pertsonak.

- Deialdi honen xedearen arabera jasota ez dauden beste ikastetxe publiko batzuetan ikastaroak egin behar dituztenak ere ezingo dira diru-laguntza honen onuradun izan, ezta beren enpresa edo erakundetik diru-laguntzak jasotzen dituztenak ere.

Sinatzaile / Firmante: URDUÑAKO UDALA / AYUNTAMIENTO DE ORDUÑA Data: 2026-11-13 10:26:47(UTC) Fecha: 13/11/2026 10:26:47 (UTC)
Sinatzaile / Firmante: JON IKER SANTOCILDES PEREZ Data: 2026-11-13 12:35:11(UTC) Fecha: 13/11/2026 12:35:11 (UTC)
Sinatzaile / Firmante: ANGEL MARIA MARCOS ROBLES Data: 2026-11-16 07:42:24(UTC) Fecha: 16/11/2026 07:42:24 (UTC)
Dekretuen zk. / N. decreto: 2026-01057 Dekretuen data / Fecha decreto: 13/11/2026
Dokumentu honen paperezko kopia inprimatua kopia kautotutzat hartuko da. / La impresión en papel de este documento tendrá la consideración de copia auténtica.
Egiaztapen Kodea / Código de Verificación (948af2eb-0047-4f5a-9df7-73bb472651ae). Elektronikoki sinatutako dokumentua / Documento firmado electrónicamente.

- Era berean, diru-laguntza horretatik kanpo geratuko dira graduondokoak, doktoretzak, masterrak eta karrera-ikastaroak, bai eta Eusko Jaurlaritzako Hezkuntza Sailak araututako irakaskuntzak (Hizkuntza Eskola, etab.) eta beste erakunde batzuek, hala nola IRALEk edo IVAPek, egindako ikastaroak ere.

BOSGARRENA.- Dirulaguntza eskatzeko epeak eta modua

Deialdiari buruzko informazioa udalaren webgunean kontsulta daiteke.

Eskaerak aurkezteko epea: 30 egun natural, deialdia Bizkaiko Aldizkari Ofizialean argitaratu eta hurrengo egunetik aurrera.

Eskabideak aurkezteko lekua:

• Udalaren webgunean: (www.urduna.com/Tramiteak)
• 39/2015 Legean aurreikusitako erregistro eta lekuetan. Kasu horretan, eskabideak Urduñako Udaleko Erregistro Orokorrera bidaliko dira (Kale Zaharra, 2-4 48460 Urduña, 9: 00etatik 13:00etara, astelehenetik ostiralera).

Eskabideak aipatutako epetik kanpo aurkezten badira, ezetsi egingo dira, eta artxibatu egingo dira, besterik gabe.

Eskabidea behar bezala formalizatuta ez badago edo aipatutako daturen bat edo dokumenturen bat faltako balitz, eskatzaileari eskatuko zaio 10 egun balioduneko epean akatsak zuzentzeko, eta adieraziko zaio, hala egiten ez badu, eskabidean atzera egin duela ulertuko dela Administrazio Publikoen Administrazio Prozedura Erkidearen urriaren 1eko 39/2015 Legearen 68. artikuluaren araberako ebazpena eman ondoren.

SEIGARRENA.- Eskabideak eta aurkeztu beharreko dokumentazioa

1) Eskabidea

Eskabidea udalaren webgunearen bidez izapidetzen bada, eskabide-inprimakia bete eta artikulu honetan adierazitako dokumentazioa PDF formatuan aurkeztu beharko da.

Eskabidea erregistro bidez izapidetzen bada, artikulu honetan adierazitako dokumentazioa eskabide-inprimakiarekin batera (1. eranskina) aurkeztuko da, behar bezala beteta eta sinatuta.

2) **Euskaltegiaren ziurtagiria**, egindako ikastaroen datuei, bertaratzeari eta ikasleak ordaindutako kopuruei buruzkoa.

Ziurtagiri hori aurkeztea ezinbestekoa da.

Eskabidean adierazitako datu guztiek bat etorri behar dute euskaltegiaren ziurtagirian adierazitakoekin. Adostasunik ez badago, euskaltegiaren ziurtagirian adierazitako datuak hartuko dira kontuan.

3) **Eskatzailearen (euskaltegiko ikaslearen) NANaren kopia**, eskaera legezko ordezkaritzaren bidez (aitak, amak edo tutoreak) edo borondatezko ordezkaritzaren bidez aurkeztu bada.

Sinatzaile / Firmante: URDUÑAKO UDALA / AYUNTAMIENTO DE ORDUÑA Data: 2026-11-13 10:26:47(UTC) Fecha: 13/11/2026 10:26:47 (UTC)
Sinatzaile / Firmante: JON IKER SANTOCILDES PEREZ Data: 2026-11-13 12:35:11(UTC) Fecha: 13/11/2026 12:35:11 (UTC)
Sinatzaile / Firmante: ANGEL MARIA MARCOS ROBLES Data: 2026-11-16 07:42:24(UTC) Fecha: 16/11/2026 07:42:24 (UTC)
Dekretuen zk. / N. decreto: 2026-01057 Dekretuen data / Fecha decreto: 13/11/2026
Dokumentu honen paperezko kopia inprimatua kopia kautotutzat hartuko da. / La impresión en papel de este documento tendrá la consideración de copia auténtica.
Egiaztapen Kodea / Código de Verificación (948af2eb-0047-4f5a-9df7-73bb472651ae). Elektronikoki sinatutako dokumentua / Documento firmado electrónicamente.

Eskabidea borondatezko ordezkaritza bidez aurkezten bada, ordezkaritzan jarduteko baimena adierazi beharko da.

Era berean, eskatzaileak kontu-zenbakia aldatu nahi badu, NANaren kopia aurkeztu beharko du.

4) **Matrikula eta/edo barnetegietako ikastaroen gastuak ordaindu izanaren egiaztagiria**.

5). **Hirugarrenen alta-fitxa** behar bezala beteta, laguntza lehen aldiz eskatzen bada edo eskatzailearen kontu korrontea aldatu bada.

Eskatzaileak aurkeztutako banku-kontuaren titularra izan beharko du. 2009. eta 2010. urteetan jaiotako eskatzaileen kasuan bakarrik aurkeztu ahal izango da amaren, aitaren edo legezko ordezkariaren banku-kontua.

Eskatzaileak edo haren ordezkariak aurreko paragrafoan aipatutako banku-kontu bat aurkezten ez badute, eta dagokion epean zuzentzen ez badu, eskatzailea kanpoan geratuko da.

Hirugarrenen fitxan, eskatzaileak kontua duen finantza-erakundearen sinadura eta zigilua jaso beharko dira.

Ezin bada banku-erakundearen sinadura eta zigilua aurrez aurre lortu, online banku-zerbitzuaren bidez lortutako kontuaren titulartasuna egiaztatzen duen agiria aurkeztu ahal izango da, betiere hirugarrenen alta-orria behar bezala beteta aurkezten bada gainerako ataletan. Hau da, onlineko bankan lortutako dokumentua onartuko da soilik hirugarrenen fitxa beteta eta sinatuta aurkezten bada datuen tratamenduari buruzko testuarekin batera.

6.- Eskatzaileak adinez nagusiak izanik, dirulaguntzaren xede den ikasturtean gutxienez hiru hilabetez langabezian egon badira, **Gizarte Segurantzaren Diruzaintzak emandako lan-bizitza aurkeztu beharko dute, edo, bestela, LANBIDE Euskal Enplegu Zerbitzuak emandako txostena**. Txosten horren arabera, zalantzarik gabe, laguntzaren eskatzailea hiru hilabetez egon da langabezian 2025eko irailetik 2026ko uztailera.

Urduñako Udalak, kasu zehatz bakoitza kontuan hartuta, egokitzat jotzen duen beste edozein agiri osagarri eskatu ahal izango dio eskatzaileari. Eskatzaileak, hala badagokio, eskabidea izapidetzea nahi badu, aurkeztu egin beharko du. Eskatzaileak ez badu dokumentazioa ezarritako epean aurkezten, eskabidean atzera egin duela ulertuko da, eta artxibatu egingo da, dagokion ebazpena eman ondoren.

ZAZPIGARRENA.- Jakinarazpenak

Oinarri hauetan aurreikusitako prozedura-egintzak Urduñako Udalaren webgunean (www.urduna.com) argitaratuko dira, Administrazio Publikoen Administrazio Prozedura Erkidearen urriaren 1eko 39/2015 Legearen 45.1 b) artikulua, banakako jakinarazpena egin beharrik gabe.

Argitalpen horretan, dagozkion epeak zenbatzen hasteko data aipatuko da.

ZORTZIGARRENA.- Balorazio-irizpideak eta bekak emateko araubidea

Deialdi honetako laugarren oinarriko baldintzak betetzen badira, dagokion diru-laguntza emango da.

Sinatzaile / Firmante: URDUÑAKO UDALA / AYUNTAMIENTO DE ORDUÑA Data: 2026-11-13 10:26:47(UTC) Fecha: 13/11/2026 10:26:47 (UTC)
Sinatzaile / Firmante: JON IKER SANTOCILDES PEREZ Data: 2026-11-13 12:35:11(UTC) Fecha: 13/11/2026 12:35:11 (UTC)
Sinatzaile / Firmante: ANGEL MARIA MARCOS ROBLES Data: 2026-11-16 07:42:24(UTC) Fecha: 16/11/2026 07:42:24 (UTC)
Dekretuen zk. / N. decreto: 2026-01057 Dekretuen data / Fecha decreto: 13/11/2026
Dokumentu honen paperezko kopia inprimatua kopia kautotutzat hartuko da. / La impresión en papel de este documento tendrá la consideración de copia auténtica.
Egiaztapen Kodea / Código de Verificación {948af2eb-0047-4f5a-9df7-73bb472651ae}. Elektronikoki sinatutako dokumentua / Documento firmado electrónicamente.

Emakida zuzeneko emakida-erregimenean egingo da, banakako ebaluazio-sistemaren bidez.

BEDERATZIGARRENA.- Baloraziorako prozedura eta ebaztea

9.1.- Eskabideak ebazteko prozedura Urduñako Udalaren udal-dirulaguntzak emateko oinarri orokorrak arautzen dituen Ordenantzan, Dirulaguntzei buruzko azaroaren 17ko 38/2003 Lege Orokorrean, hura garatzen duen erregelamendu-araudian eta bat datozen beste lege-xedapen batzuetan araututakoari lotuko zaio.

Euskara Saila arduratuko da prozeduraren instrukzioaz.

Balorazio Batzordea kide anitzeko organoa da, eta honako hauek osatuko dute:

- Euskara eta Hezkuntza Saileko zinegotzia
- Euskara eta Hezkuntzako teknikaria.

Eskabideak deialdi honetan ezarritako balorazio-irizpideen arabera ebaluatu ondoren, Balorazio Batzordeak txosten bat egingo du egindako ebaluazioaren emaitza zehazteko.

Euskara Sailak, instrukzio-organoa den aldetik, ebazpen-proposamena egingo du, eta, bertan, emandako eta ukatutako laguntzak zeintzuk diren zehaztuko du, espedientea eta Balorazio Batzordearen txostena kontuan hartuta.

9.2.- Ebazpen-proposamena Alkatetzari helaraziko zaio, emakidak eta ukapenak zehaztuko dituen prozedura ebazteko erabakia hartzeko organo eskuduna den aldetik. Ebazpenak, gutxienez, honako hauek jasoko ditu: onuradunen zerrenda, zenbatekoak eta, halakorik gertatuz gero, ukapenen arrazoi egokiak eta nahikoak.

9.3.- Eskabideak ebazteko eta ebazpena jakinarazteko gehieneko epea sei (6) hilabetekoa izango da, deialdia argitaratzen den egunetik zenbatzen hasita.

Emandako eta ukatutako laguntzak jakinaraziko dira. Udalaren www.urduna.com webgunean argitaratzeaz gain, eskatzaileak edo ordezkariak eskabidean adierazitako helbidean eta egoitza elektronikoan ere jakinaraziko da. Adierazitako helbidean jakinarazi ezin bada, Estatuko Aldizkari Ofizialean argitaratuko da jakinarazpena, 39/2015 Legearen arabera.

Emandako laguntza guztiak Dirulaguntzen Datu-base Nazionalean argitaratu beharko dira, 38/2003 Legearen araber

9.4.- Epe hori igarotakoan berariazko ebazpenik eta jakinarazpenik ematen ez bada, eskaera administrazio-isiltasunez ezetsi dela ulertuko da, nahiz eta geroago esanbidez ebatzi ahal izango den.

Ebazpen horrek amaiera ematen dio administrazio-bideari, eta, beraren aurka, aukerako berraztertzeko errekurtsoa aurkez dakioke alkateari, hilabeteko epean, ebazpena jakinarazi eta biharamunetik hasita, interesdunak adierazitako helbidean; bestela, administrazioarekiko auzi-errekurtsoa aurkez daiteke dagokion administrazioarekiko auzien epaitegian, bi hilabeteko epean, ebazpena jakinarazi eta biharamunetik hasita, interesdunak adierazitako helbidean.

9.5.- Onuradunek 15 egun naturaleko epea izango dute dirulaguntzari uko egiteko, dirulaguntza ematea erabakitzen duen ebazpena jakinarazi eta hurrengo egunetik aurrera.

Sinatzaile / Firmante: URDUÑAKO UDALA / AYUNTAMIENTO DE ORDUÑA Data: 2026-11-13 10:26:47(UTC) Fecha: 13/11/2026 10:26:47 (UTC)
Sinatzaile / Firmante: JON IKER SANTOCILDES PEREZ Data: 2026-11-13 12:35:11(UTC) Fecha: 13/11/2026 12:35:11 (UTC)
Sinatzaile / Firmante: ANGEL MARIA MARCOS ROBLES Data: 2026-11-16 07:42:24(UTC) Fecha: 16/11/2026 07:42:24 (UTC)
Dekretuen zk. / N. decreto: 2026-01057 Dekretuen data / Fecha decreto: 13/11/2026
Dokumentu honen paperezko kopia inprimatua kopia kautotutzat hartuko da. / La impresión en papel de este documento tendrá la consideración de copia auténtica.
Egiaztapen Kodea / Código de Verificación (948af2eb-0047-4f5a-9df7-73bb472651ae). Elektronikoki sinatutako dokumentua / Documento firmado electrónicamente.

HAMARGARRENA.- Diru-laguntza ordaintzea

Diru-laguntza osoa hilabeteko epean ordainduko da, eskatzaileak adierazitako kontuan banku-transferentzia bidez diru-laguntza ematea erabakitzen duen ebazpena jakinarazten denetik zenbatzen hasita.

HAMAIKAGARRENA.- Kontrola

Diru-laguntza ematen duen organoak egoki iritzitako administrazio-kontrolak eta ikuskapenak egin ahal izango ditu, aurkeztutako dokumentazioan jasotako datuak egiazkoak direla eta diru-laguntza jasotzeko baldintzak betetzen direla egiaztatzeko.

Onuradunak ikuskapen horretan lagundu beharko du nahitaez, eta eskatutako datuak eman beharko ditu.

Onuradunak betebehar hauek izango ditu:

• Urduñako Udalak egin beharreko egiaztapen-jarduketei men egitea, bai eta organo eskudunek egin dezaketen beste edozein egiaztapen eta finantza-kontroli ere.

• Helburu bererako jasotako edo eskatutako beste diru-laguntza batzuen berri ematea Udalari, eta, nolanahi ere, jasotako laguntzen baturak ezingo du inoiz gainditu diruz lagun daitekeen gastua.

• Jasotako funtsen egiaztagiriak gordetzea, dokumentu elektronikoak barne, egiaztapen- eta kontrol-jarduerak egin ahal izateko.

• Eskabidean edo aurkeztutako dokumentazioan formulatutako datuen egiazkotasuna. Horietan faltsutasunik atzemanez gero, diru-laguntza ukatu egingo da automatikoki.

• Diru-laguntza emateko kontuan hartutako edozein inguruabar objektibo zein subjektiboren aldaketa jakinaraztea.

HAMABIGARRENA.- Beste laguntza batzuekiko bateragarritasuna

Urduñako Udalak emandako laguntza bateragarria da HABEk emandakoarekin.

Era berean, bateragarria da beste administrazio edo erakunde publiko edo pribatu batzuek emandako laguntzekin (adibidez, Osakidetza, elkargo profesionalak, enpresa pribatuak...).

HABEk, beste administrazio edo erakunde publiko edo pribatuek eta Urduñako Udalak emandako dirulaguntzen baturak ezin du gainditu 2025-2026 ikasturteko matrikulen guztizko aurrekontua.

Urduñako Udalaren deialdiaren arabera aprobetxamendu-baldintzak betetzen dituzten ikastaroei dagokien diru-kopuruari HABEk edo beste administrazio edo erakunde publiko edo pribatu batzuek emandako diru-kopurua kenduko zaio.

HABEk 2025-2026 ikasturterako emandako dirulaguntza kontuan hartuko da gainfinantzaketa saihesteko, HABEk diruz lagundutako euskara-maila edozein dela ere, euskara ikasteko prozesua bere osotasunean hartuta.

Emandako laguntza guztiak Dirulaguntzen Datu-base Nazionalean argitaratu beharko dira, 38/2003 Legearen arabera.

Sinatzaile / Firmante: URDUÑAKO UDALA / AYUNTAMIENTO DE ORDUÑA Data: 2026-11-13 10:26:47(UTC) Fecha: 13/11/2026 10:26:47 (UTC)
Sinatzaile / Firmante: JON IKER SANTOCILDES PEREZ Data: 2026-11-13 12:35:11(UTC) Fecha: 13/11/2026 12:35:11 (UTC)
Sinatzaile / Firmante: ANGEL MARIA MARCOS ROBLES Data: 2026-11-16 07:42:24(UTC) Fecha: 16/11/2026 07:42:24 (UTC)
Dekretuen zk. / N. decreto: 2026-01057 Dekretuen data / Fecha decreto: 13/11/2026
Dokumentu honen paperezko kopia inprimatua kopia kautotutzat hartuko da. / La impresión en papel de este documento tendrá la consideración de copia auténtica.
Egiaztapen Kodea / Código de Verificación (948af2eb-0047-4f5a-9df7-73bb472651ae). Elektronikoki sinatutako dokumentua / Documento firmado electrónicamente.

HAMAHIRUGARRENA.- Justifikazioa

Udalak dagokion justifikazioa eskatzen badu, deialdi honen seigarren klausulan adierazitakoa izango da justifikatzeko dokumentazioa.

HAMALAUGARRENA.- Diru-laguntza galtzea eta itzultzea

Jasotako diru-laguntza eta dagozkion berandutze-interesak itzuli beharko dira, baldin eta aurreko oinarrietan edo Urduñako Udalaren diru-laguntzak emateko oinarri orokorrak arautzen dituen ordenantzan eta Diru-laguntzei buruzko azaroaren 17ko 38/2003 Lege Orokorraren 37. artikuluan ezarritako betebeharren bat edo batzuk betetzen ez badira.

Diruz lagundutako jardueraren kostuarekiko gehiegizko finantzazioa ere itzultzeko arrazoia izango da.

Eskabidean edo aurkeztutako dokumentazioan formulatutako datuen faltsutasuna.

Horietan faltsutasunik atzemanez gero, diru-laguntza ukatu egingo da automatikoki.

Diru-laguntza itzultzeko eskatzen duen ebazpena diru-laguntza eman zuen organoak berak emango du.

Itzulketa-espedientea bat etorriko da Administrazio Publikoen Administrazio Prozedura Erkidearen urriaren 1eko 39/2015 Legearen IV. tituluan ezarritako prozedura-arauekin, eta 15 egun balioduneko entzunaldi-izapidea emango zaio interesdunari.

Uztailaren 21eko 887/2006 Errege Dekretuaren (Diru-laguntzei buruzko azaroaren 17ko 38/2003 Lege Orokorraren Erregelamendua onartzen duena) III. eta IV. tituluetan eta azaroaren 17ko 38/2003 Lege Orokorraren II. tituluan xedatutakoa ere kontuan hartuko da. Diru-laguntzak.

HAMABOSGARRENA.- Zehapen-araubidea

Arau-hausteen eta zehapenen araubidea Diru-laguntzei buruzko azaroaren 17ko 38/2003 Lege Orokorraren IV. tituluan eta Euskal Administrazio Publikoen zigortzeko ahalmenari buruzko martxoaren 16ko 1/2023 Legean ezarritakoa izango da.

HAMASEIGARRENA.- Zabaltzea

Deialdi hau Urduñako udalaren webgunean (www.urduña.com) zein Bizkaiko Aldizkari Ofizialean argitaratuko osorik, eta halaber, iragarki-oholetan eta ZIKOINA udal-aldizkarian bere berri emango da, deialdiaren ahalik eta zabalkunde handiena bilatuz.

HAMAZAPIGARRENA.- Datuak babestea

Urduñako Udaleko Euskara Arloak, euskara ikasteko eskabideak kudeatzeari eta laguntzak emateari dagokionez, datu pertsonal horiek Euskadiko Toki Erakundeei buruzko apirilaren 7ko 2/2016 Legearen arabera tratatzen ditu.

Datu horiek beste administrazio publiko batzuei jakinarazi ahal izango zaizkie, emandako datuak egiaztatzeko, eta, bereziki, Gizarte Segurantzako erakundeei, ogasun publikoari eta zerga-administrazioari eta HABEri.

Sinatzaile / Firmante: URDUÑAKO UDALA / AYUNTAMIENTO DE ORDUÑA Data: 2026-11-13 10:26:47(UTC) Fecha: 13/11/2026 10:26:47 (UTC)
Sinatzaile / Firmante: JON IKER SANTOCILDES PEREZ Data: 2026-11-13 12:35:11(UTC) Fecha: 13/11/2026 12:35:11 (UTC)
Sinatzaile / Firmante: ANGEL MARIA MARCOS ROBLES Data: 2026-11-16 07:42:24(UTC) Fecha: 16/11/2026 07:42:24 (UTC)
Dekretuen zk. / N. decreto: 2026-01057 Dekretuen data / Fecha decreto: 13/11/2026
Dokumentu honen paperezko kopia inprimatua kopia kautotutzat hartuko da. / La impresión en papel de este documento tendrá la consideración de copia auténtica.
Egiaztapen Kodea / Código de Verificación (948af2eb-0047-4f5a-9df7-73bb472651ae). Elektronikoki sinatutako dokumentua / Documento firmado electrónicamente.

Interesdunak eskubidea du Urduñako Udalaren aurrean datuak eskuratzeko, zuzentzeko, ezabatzeko eta datuen tratamendua mugatzeko edo haren aurka egiteko. Era berean, eskubidea dago Datuak Babesteko Euskal Bulegoan erreklamazioa egiteko.

HAMAZORTZIGARRENA.- Araudia

Oinarri hauetan aurreikusi ez dena Urduñako Udalaren diru-laguntzak emateko Oinarri Orokorrak arautzen dituen Ordenantzan (2011ko irailaren 21eko Bizkaiko Aldizkari Ofiziala, 181. zk.), Diru-laguntzei buruzko azaroaren 17ko 38/2003 Legean eta Diru-laguntzei buruzko Erregelamendu Orokorra onartzen duen uztailaren 21eko 887/2006 Errege Dekretuan ezarritakoaren arabera interpretatuko da.

Era berean, diru-laguntzen arloan honako arrazoi hauengatik xedatutakoa aplikatuko da:

- 3/2018 Lege Organikoa, abenduaren 5ekoa, Datu Pertsonalak Babestekoa eta Eskubide Digitalak Bermatzekoa.
- 1/2023 Legegintzako Dekretua, martxoaren 16koa, Eusko Legebiltzarraren Emakumeen eta Gizonen Berdintasunerako eta Emakumeen aurkako Indarkeria Matxistarik Gabeko Bizitzetarako Legearen testu bategina eta gainerako arau osagarriak onartzen dituena.
- 19/2013 Legea, abenduaren 9koa, gardentasunari, informazio publikoa eskuratzeko bideari eta gobernu onari buruzkoa.
- 39/2015 Legea, urriaren 1ekoa, Administrazio Publikoen Administrazio Prozedura Erkidearena.
- 2/2016 Legea, apirilaren 7koa, Euskadiko Toki Erakundeei buruzkoa.
- 1/2013 Legegintzako Errege Dekretua, azaroaren 29koa, desgaitasuna duten pertsonen eskubideei eta haien gizarteratzeari buruzko Lege Orokorraren testu bategina onartzen duena.
- 72/2008 Dekretua, apirilaren 29koa, Euskal Autonomia Erkidegoko Administrazio Orokorraren eta haren erakunde autonomoen erregistroen sorrera, antolaketa eta funtzionamenduari buruzkoa.

Sinatzaile / Firmante: URDUÑAKO UDALA / AYUNTAMIENTO DE ORDUÑA Data: 2026-11-13 10:26:47(UTC) Fecha: 13/11/2026 10:26:47 (UTC)
Sinatzaile / Firmante: JON IKER SANTOCILDES PEREZ Data: 2026-11-13 12:35:11(UTC) Fecha: 13/11/2026 12:35:11 (UTC)
Sinatzaile / Firmante: ANGEL MARIA MARCOS ROBLES Data: 2026-11-16 07:42:24(UTC) Fecha: 16/11/2026 07:42:24 (UTC)
Dekretuen zk. / N. decreto: 2026-01057 Dekretuen data / Fecha decreto: 13/11/2026
Dokumentu honen paperezko kopia inprimatua kopia kautotutzat hartuko da. / La impresión en papel de este documento tendrá la consideración de copia auténtica.
Egiaztapen Kodea / Código de Verificación {948af2eb-0047-4f5a-9df7-73bb472651ae}. Elektronikoki sinatutako dokumentua / Documento firmado electrónicamente.

ANEXO I

BASES REGULADORAS ESPECÍFICAS PARA LA CONCESIÓN DE SUBVENCIONES PARA EL ESTUDIO DE EUSKERA. ORDUÑA, 2026.

PREÁMBULO.-
El Ayuntamiento de Orduña considera que uno de los pilares de la normalización del uso del euskera, más aún en un contexto sociolingüístico como el de Orduña, es el fomento de la euskaldunización y/o alfabetización de las y los ciudadanos mediante cursos homologados al efecto. Por ello, a través de su Área de Euskera, el Ayuntamiento de Orduña pretende con esta regulación establecer el marco procedimental de la concesión de subvenciones por el estudio del euskera.

PRIMERA.- Objeto de la subvención
Las presentes bases tienen por objeto establecer el marco normativo regulador de la concesión de subvenciones por el estudio del euskera durante el curso 2025-2026, concretamente por la realización de cursos cuyo objeto sea la euskaldunización y/o alfabetización de adultos, realizados tanto en euskaltegis como en régimen de internado (barnetegis), siempre y cuando los mismos estén homologados.

Se entiende por curso 2025-2026 el periodo comprendido entre el 1 de septiembre de 2025 y el 31 de julio de 2026.

El principal objetivo es impulsar y normalizar el uso del euskera en Orduña, tomando como base los ejes estratégicos del Plan de Acción para la Promoción del Euskera: transmisión y adquisición del euskera, uso y calidad.

SEGUNDA.- Presupuesto

La disponibilidad presupuestaria para las subvenciones a adjudicar para el ejercicio 2026 se fija en los 14.000 euros.

Si en el transcurso de la convocatoria, desde la aprobación de la convocatoria hasta la concesión de la subvención, se produjera una minoración en la cuantía presupuestaria, la cuantía de la subvención se ajustará para evitar la existencia de déficit.

